

opusdei.org

Helsinkiko gotzain berria eta munduko elizbarruti txikienetako baten erronkak

Ramon Goyarrola Helsinkiko
Goztzen izendatu du berriki
Aita Santu Frantziskok.
Hedabide batzuk Opus Deiko
apaiz honen historia
ezagutarazi dute, Finlandian
duela ia 20 urte bizi dena.

2023 Abe 4

Bilbotar peto petoa da Ramon Goyarrola (1969). Gogotsu eta adorez beterik jaso du Helsinkiko gotzain izendapena orain dela gutxi. Ongi ezagutzen du bertako Elizbarrutia, han aritu baita orain arte Bikario orokor gisa. Dioenez, lasai dago otoitzean hausnartu eta gogoan erabili duelako Aita Santuaren izendapena, berriki onartu duena.

Ramonek medikuntza estudiatu zuen Nafarroako Unibertsitatean eta lizentziatura amaitu eta urte batzuk geroago apaiz sagaratu zuten. Duela ia 20 urte lurreratu zen lehenengoz Helsinkin. Urte hartan hiriko gotzainak Opus Deiko Prelatuari eskatu zion apaizen bat bidal zezala herrialdeko ebanjelizazio lanetan laguntzeko.

Halatan, maletak egin eta Europako Iparraldera jo zuen Ramonek eta, dioenez, ezer gutxi kostatu zaio herrialde hain hotz batera ohitzea,

arrotz zitzaizkion hizkuntza eta kulturekin, eta eguzki orduak hain urri dituenak. Bertakoek ponte-izena, Ramon, aldatu eta beste bat jarri zioten, Raimo, finlandiarren belarrietara hobeto jotzen duena. Hainbat hedabideri (The Objective edo El Correo-ri, adibidez) eskainitako elkarrizketetan esan duenez, Iparraldearen maitemindu bat da umetatik, Europako Iparraldeko herriek bere interesa era berezian erakarri zutelarik.

Herrialdeko apaiz katolikoen eskasiak (30ren bat besterik ez dago) eragin du Ramonek oso eginkizun ezberdinetan jardun behar izana. Urteetan kapilau aritu da Opus Dei bultzatzen duen eta Helsinkin kokatzen den Unibertsitate Egoitza batean, herrialdeko gazte askorekin kontaktua izan duelarik. Gero posizio bera izan zuen Helsinkiko Commercial Collegen. Gainera,

kartzela eta armadako pastoralaz
arduratu da.

Laster larratuko duen elizbarrutia munduko txiro eta sekularrenetako bat da, 16.000 fededun katoliko besterik ez dituen, populazio osoaren %1 baino gutxiago, eta 8 parrokia. Ia sinestedun guztiak luthertarrak dira (%68), %1,1 ortodoxoak eta gainontzekoak, ateo edo agnostikoak. Kristau elizen aniztasun honek, hain zuzen, erreferente bihurtzen du herrialdea erlijioarteko dialogoan, ekumenismo sendo bat eta sinisteen arteko begirunea ezaugarri bereziak dituen. Ramonek berak maiz nabarmendu du atentzio ematen diola finlandiarren entzuteko eta ulerkor izateko gaitasuna. El Correion aitortu zuen moduan, “hemengo jendeak ez du aurreiritzirik eta badaki entzuten: baliteke ideia oso ezberdinak edukitzea baina begirunea diote elkarri eta

besteengandik zerbait ikas
dezaketela pentsatzen dute.
Europako hegoaldean, berriz, etsai
gisa begiratuko liokete elkarri.
Hemen badago on komun bat,
norberaren ikuspegiaren gainetik
dagoena”. Ondo baino hobeto
ezagutzen du Ramonek Elizbarrutian
pairatzen den lazeria ekonomikoa.
Umoretsu kontatzen du pobreak
direla eta elizbarrutian duten diru
apurra berogailua ordaintzeko
erabiltzen dutela, tenperatura
baxuak direla-eta.

Bi arazo ikusten du Goyarrolak
herrialdean bereziki konpondu
beharrekoak: alkoholismo eta
suizidioa, zeinen sendabidea soilik
Jainkoak ematen duen
Zoriontasunean (hau maiuskulaz
idatzia) aurki daitekeen. Azaroan
sagaratuko dute gotzain eta, hala,
Ramon Jainko herriaren zati txiki
honen buruan jarriko da eta baita
ere Finlandiak aurrean dituen

erronkei aurpegia ematen hasi. Han
ez du bakarrik iparraldeko haize
hotzak jotzen, Espiritu Santuarena
ere badabil-eta.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/
helsinkiko-gotzain-berria-eta-munduko-
elizbarruti-txikienetako-baten-
erronkak/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/helsinkiko-gotzain-berria-eta-munduko-elizbarruti-txikienetako-baten-erronkak/) (2025 Abu 7)